

Ebazpena: R 68/2023

Espedientea: 19/2017 eta 30/2017, metatuak

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea norik duen eskumena IDAR 2000 SL sozietateak zerbitzuak ustez lurralde erkidean soilik eman zituzten zenbait langileri 2012, 2014 eta 2015 urteetan eginiko lan-atxikipenak ordainarazteko. Gatazkok Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 19/2017 eta 30/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.- IDAR 2000 SL egoitza fiskala Bizkaian daukan sozietate bat da.
- 2.- ZAEAk egiaztapen mugatuko prozedura bat abiarazi zuen 2016ko abenduaren 4an, 2012tik 2015era bitarteko urteetan zerbitzuak eskusiboki

lurralde erkidean eman zituzten langileen lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotuta.

3.- IDAR 2000 SL sozietateak, 2017ko otsailaren 15ean, aipatu lan-atxikipenak ZAEARI bidaltzeko eskatu zion BFARI.

4.- ZAEAK, 2017ko otsailaren 23an, behin-behineko likidazioa agindu zuen, eta, bertan ulertzen zenez, ZAEARI zegozkion zenbait langileren lan-atxikipenak, langileok zerbitzuak eskusiboki lurralde erkidean eman zituztela-eta.

Zegozkion lan-atxikipenen zenbatekoak honako hauek ziren: 16.455,13 euro 2012. urteagatik; 19.145,67 euro 2013. urteagatik; 32.335,35 euro 2014. urteagatik; eta, 42.248,93 euro 2015. urteagatik.

5.- Akordioa 2017ko otsailaren 28an jakinarazi zitzaion BFARI, eta zenbateko totalaren bidalketa eskatu zitzaion: 110.185,08 euro.

6.- Likidazioa 2017ko martxoaren 3an jakinarazi zitzaion obligaziodunari.

7.- BFAK, 2017ko martxoaren 13an, uko egin zion 2012. urteari zegozkion bidalketa egiteari, preskripzioa argudiatuta.

8.- BFAK, 2017ko maiatzaren 4an, uko egin zion bidalketak egiteari, argudiatuta ZAEAK eskumenik ez zuela egiaztapen mugatuko prozedura baten bitartez lan-atxikipenak egiaztatzeko.

9.- ZAEAK, 2017ko maiatzaren 15ean, inhibititu zedila eskatu zion BFARI, zehazki, langileen 2012ko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenari zegozkionez; eskaerari uko egin zion BFAK 2017ko maiatzaren 23an.

10.- ZAEAk, 2017ko ekainaren 20an, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean langileen 2012ko lan-atxikipenekin lotuta, eta auziari 19/2017 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

11.- ZAEAk, 2017ko uztailaren 4an, inhibitu zedila eskatu zion BFari, zehazki, 2012-2015 urteetan zerbitzuak eskusiboki lurralde erkidean eman zituzten langileen lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenari zegokionez.

12.- BFAk, 2017ko abuztuaren 1ean, inhibitzeko jasotako eskaera onartu zuen, NTA langilearen kasuan salbu; izan ere, BFaren iritziz, NTA andreak zerbitzuak foru-lurraldean eta atzerrian eman zituen, betiere, gainera, Bizkaian kokatutako lantokira adskribatuta egonik.

13.- ZAEAk, 2017ko abuztuaren 31n, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean NTA andreak 2014ko eta 2015eko lan-atxikipenekin lotuta, argudiatuta urte horietan zerbitzuak atzerrian eman zituela; auziari 30/2017 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

14.- Espedienteak metatzea erabaki zen 2021eko azaroan 26an, bai eta prozedura arruntaren bidez izapidetzea ere.

15.- Aurkeztutako alegazio-idazkian, BFAk soilik 2012ko lehen hiru hiruhilekoen preskripzioa eskatu zuen, 2016ko abenduaren 4ko hasierako jakinarazpenari administrazioen arteko kredituaren preskripzioa eteteko gaitasuna aitortuta.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka honako eztabaida hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua honako hau xedatzen du:

«Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Arbitraje Batzordeak ulertu du gatazka horien azpian formazko, eskumenezko eta funtsezko eztabaida bera dagoela, eta, beraz, gatazka horiek metatzea erabaki da.

3.- Administrazioen arteko kreditu-eskubidearen preskripzioa 2012ko lan-atxikipenen gainean

Arbitraje Batzordeak 11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko, 2022ko otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaietan (ECLI:ES:TS:2015:5337, ECLI:ES:TS:2022:596, ECLI:ES:TS:2020:4077, ECLI:ES:TS:2021:372 eta ECLI:ES:TS:2020:1010 epaiak, hurrenez hurren), irizpide konstante bat ezarri dute: administrazioen arteko eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko eskubidearen preskripzio-epea bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten da, eta ez da eteten zergadunaren gaineko eskumenaren jabetzat jotzen den administrazioak (hirugarren bat izaten da administrazioen arteko harreman juridikoan) zerga-prozeduran egiten dituen jarduketan ondorioz.

Aipatutakoaren bat, beraz, 2012ko lan-atxikipenak erreklamatzeko eskubidea preskribatuta egongo litzateke.

4.- NTA andreari 2014an eta 2015ean egindako lan-atxikipenen gainean

ZAEAk onartu egin du zehaztutako urteetan aipatu langileak zerbitzuak atzerrian eman zituela.

Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean adierazi zuenez, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren jatorrizko idazketak, *ratione temporis* aplikatu beharrekoak, arau-hutsune bat zuen jurisdikziopeko itsasoan eta/edo atzerrian zerbitzuak ematen dituzten langileen ordainarazpen-eskumenari dagokionez, integratu egin behar baitzen, eta ezin zen onartu Estatuaren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren alde berariaz hitzartuta ez egoteagatik.

Horrela, Arbitraje Batzordeak Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko Epaiak (ECLI:ES:TS:1998:6730) ezarritako bideari jarraitu zion. Epai horretan Kontzertuaren interpretazio integratzailea egitea erabaki zen, arau-hutsune bat zegoela iritzita, eta inplizituki onartu zuen nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzaileek lortutako etekinak, kontzeptualki, EAEn lortutzat jo zitezkeela «lantokia» bertan egonez gero.

Jurisprudentzia-ildo hori bera berretsi zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), Arbitraje Batzordearen 6/2018 Ebazpena berresten baitu, honako hau adieraziz: «Arbitraje Batzordeak errekurritutako ebazpenean emandako argudio guztietatik, bat bereziki sinesgarria da: zaila da Estatuaren abokatuaren tesiari eustea (horren arabera, jurisdikziopeko itsasoa eta nazioarteko urak ezin dira inoiz EAeko lurraldea izan) 2017ko legegileak berak gaia arautu duela kontuan izanik, berariaz aurreikusten baitu horietan emandako zerbitzuak “lantokiari” egozteko aukera, hau da, kasu horietan, egoitza-portua kokatuta dagoen lekua, lurralde erkidea izan zein foru-lurraldea izan».

Horrela, bada, baketsutzat jo daiteke, aipatutako azken epaiak dioen bezala: «eztabaidaezina da 2017ko erreformaren aurreko erregulazioak hutsune bat zuela, interpreteak edo zuzenbidearen aplikatzaileak nahitaez bete beharrekoa».

Hutsune hori ebazte aldera, Auzitegi Gorenak hau dio: «esan daiteke –foru-aldundiek dioten bezala– 2017ko Legeak identifikatu dugun hutsunea bete duela, eta gaiari buruzko benetako interpretazio bat eskaini, etorkizunera begira proiektatzen dena; egia da interpretazio hori etorkizunerantz proiektatzen dela, baina interpretazio-parametroa ere izan daiteke aurreko aldiei dagokienez, eta horrek zalantzaren bat eragin dezake ebazpenari buruz».

Horrela, Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean ezarritako irizpidea berresten da; izan ere, langilea adskribatuta dagoen «lantokira» jo zuen ordainarazpenaren eskumena arautzen duen araudia integrazeko interpretazio-irizpide egoki gisa, baina itsasontzi batean zerbitzuak ematen dituzten marinel eta arrantzaleen kasuan, irizpide hori itsasontziaren egoitza-portuari lotzen zaio.

Kasu honetan, langilea «adskribatuta» dagoen lantokia Bizkaian dago, eta, horrenbestez, eskumena BFari dagokio.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

- 1.- Preskribatutzat jotzea administrazioen arteko kreditu-eskubidea 2012ko lan-atxikipenen gainean zerbitzuak eskusiboki lurralde erkidean eman zituzten langileen kasuan.
- 2.- Ebaztea Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkiola NTA andreari 2014an eta 2015ean egindako lan-atxikipenak.
- 3.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta IDAR 2000 SL sozietateari.